

CNMVko erregistro-zenbakia: 4448

Kudeatzailea: CAJA LABORAL GESTION, S.G.I.I.C., S.A. **Gestorearen taldea:** CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CR **Auditorea:** PRICEWATERHOUSECOOPERS S.
Gordailuzaina: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CR **Gordailuzainaren taldea:** CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CR **Gordailuzainaren ratinga:** BBB+ (Fitch)
Konpartimentudun fondoa: Ez **Erregistro-data:** 2012/03/02an

Txosten hau eta aldizkako azken txostenak bide telematikoen bitartez daude erabilgarri www.laboralkutxa.com
 Bezeroek IKE-ei buruz egiten dituzten kontsultak hemen argituko ditu erakunde gestoreak:

Helbidea: Jose Maria Arizmendiarieta, 5-3 20500 - Arrasate/Mondragón Guipuzcoa **Telefona:** 943790114
Helbide elektronikoa: FondosdelInversion@laboralkutxa.com

Era berean, bezeroarentzako arreta-departamentu bat duzu, kexak eta erreklamazioak bideratzeko. CNMVk ere inbertitzailearen Arreta Bulegoa jartzen dizu eskura, 902 149 200 telefono-zenbakian eta inversores@cnmv.es helbide elektronikoa.

1. Inbertsio-politika eta izendapen-dibisa

Kategoria

Fondo mota: Fondo que invierte mayoritariamente en otros fondos y/o sociedades.
 Inbertsio-bokazioa: NAZIOARTEKO ERRENTA ALDAKOR MISTOA.
 Arrisku-profila: 4 (1etik 7ra bitarteko eskala baten)

Deskribapen orokorra

Inbertsio politika: Gestioaren erreferentzia % 30 MSCI World + % 30 BofA ML 3-5 Euro Government + % 25 BofA ML Global large Cap Corporate + % 10 BofA ML Global High Yield + % 5 Eonia da. Ondarearen % 50-100 inbertituko da gestio-erakundearen taldekoak diren edo ez diren Finantza IKE-etan (aktibo egokia), harmonizatuak izan ala ez (IKE harmonizatu gabeetan, % 30 gehienez); erabateko itzulkinetako IKE-etan (merkatuaren bilakaerari lotuta ez daudenak), berriz, % 20raino inberti daiteke. Zuzenean edo zeharka, edozein kapitalizazio eta sektoretako errenta aldakorrean inbertitzen da esposizio osoaren % 0-75 artean; gainerakoa, berriz, errenta finko publiko/pribatua, barne direla diru-merkatuan kotizatzen diren edo ez diren tresnak, likidoak eta, batik bat, gordailuak, titulazioak, Espainiako finantza-erakundeetako mendeko zorra, hipoteka-zedulak eta Espainiako jaulkitzaileen zor-agiriak. Dibisa-arriskurako esposizioa % 0-100 artean izango da. Zuzeneko inbertsioan eta zeharkakoan, ertaina (gutxienik) izan behar du errenta finkoko jaulkipenen kalitateak (BBB-, gutxienez), edo, hortik beherakoa bada, une bakoitzean Espainiako Erresumak daukana; behe-mailako kalitatekoa (BBB- baino txikiagoa), berriz, esposizio osoaren % 25eraino izan daiteke. Errenta finkoko zorroaren batez besteko iraupenak -1 eta 6 urte bitartekoa izan behar du. Batez ere ELGEkoak izan behar dute jaulkitzaileek eta merkatuek, eta esposizio osoaren % 25eraino inberti daiteke suspertzen ari diren herrialdeetan. Herrialde horietako errenta aldakorretan egiten den inbertsioak ez du gaunditu behar % 10, ez eta % 25 ere suspertzen ari diren herrialdeetan eta/edo errendimendu handiko jaulkitzaileetan egiten denak. Aukera egongo da, % 35etik gora Europar Batasuneko estatu batean, autonomia-erkidego batean, toki-erakunde batean, Espainia kide duten nazioarteko erakundeetan eta Espainiakoa baino kaudimen handiagoa estatuetan inbertitzeko.

Tresna deribatuetako eragiketak

Fondoak, konpromisoaren metodologia erabiliko du finantza tresna deribatuak dagozkien merkatu arriskua neurtzeko.

Deribatuen merkatu antolatuetan negoziatutako finantza-tresnekin jardun ahal izango da estaldura- eta inbertsio-helburuetarako, eta deribatuen merkatu antolatuetan negoziatzen ez diren finantza-tresnekin ere egin ahal izango dira eragiketak, estaldura- eta inbertsio-helburuetarako. Eragiketak egiteko modu horrek, baina, arriskuak ditu; izan ere, estaldura perfektua ez izatea gerta liteke, palanka-efektua eragiten dutelako eta konpentsazio-ganberarik ez dagoelako. Informazio-liburuxkak inbertsio-politikari buruzko informazio zehatzagoa jasotzen du.

Izendapen-dibisa

EUR

2. Datu ekonomikoak

2.1.a) Datu orokorrak (Akzioak)

Informazio eskuragarririk ez dagoenean, gelaxkak zuri ageriko dira

	Oraingo aldia	Aurreko aldia
Egungo partaidetza kopurua	30.663.775,25	30.404.488,99
Egungo partaide kopurua	4.057	4.027
Egungo partaidetzagatik banatutako mozkin gordinak (EUR)		
Gutxieneko inbertsioa (EUR)	1000	

2.1.b) Datu orokorrak (Ondarea/Likidazio-balioa)

Data	Aldiaren amaierako ondarea (Milaka EUR)	Aldiaren amaierako likidazio-balioa EUR (*)
Txostenaren aldia	236.220	7,7036
2018	213.183	7,0140
2017	205.977	7,5755
2016	180.703	7,2145

2.1.b) Datu orokorrak (Komisioak)

Aldian batez besteko ondarearen gainean kobratutako komisioak

Gestio-komisioa							
Benetan kobratutako %-a						Kalkulu-oinarria	Inputazio-sistema
Aldia			Metatua				
ondarearen gain	emaitzen gain	Gutxira	ondarearen gain	emaitzen gain	Gutxira		
0.35		0.35	1.05		1.05	Ondarea	

Gordailuzain-komisioa		
Benetan kobratutako %-a		Kalkulu-oinarria
Aldia	Metatua	
0,03	0,07	Ondarea

2.1.b) Datu orokorrak (Biriketa/Errentagarritasuna)

	Uneko aldia	Aurreko aldia	Uneko urtea	2018 urtea
Zorroaren errotazio-indizea	0,19	0,09	0,43	1,19
Likideziaren batez besteko errentagarritasuna (% eguner	0	0	0	0

OHARRA: Aldia hiruhilekoa edo seihiilekoa izan daiteke, dagokionaren arabera. IKEaren likidazio-balioa eguneroko zehazten ez bada, azken datu erabilgarria hartuko da errentagarritasuna eta ondarea zehazteko.

2.2 Portaera

Informazio eskuragarririk ez dagoenean, gelaxkak zuri ageriko dira.

A) Indibiduala

Errentagarritasun (% urtekotu Gabe)

	Metatua	Hiru hilean behingoa				Urteko			
	Uneko urtea	Azken Hiruhil.(0)	Hiruhil.-1	Hiruhil.-2	Hiruhil.-3	2018	2017	2016	2014
Errentagarritasun	9,83	1,09	1,22	7,34	-7,29	-7,41	5,00		

Likidazio-balioak, eta beraz errentagarritasunak, ez du aintzat hartzen partaideari kobratu beharreko emaitzen gaineko gestio-komisioren eragina.

Muturreko errentagarritasunak (i)	Uneko hiruhilekoa		Azken urtea		Azken 3 urteak	
	%	Data	%	Data	%	Data
Gutxienezko errentagarritasuna (%)	-1,29	02-08-2019	-1,29	02-08-2019		
Gehienezko errentagarritasuna (%)	0,86	08-08-2019	1,57	04-01-2019		

(i) Eskatutako aldiaren gutxieneko antzintasuna duten klaseetarako soilik jakinarazten da, eta betiere haren kokazio inbertitzailea aldatu ez bada. Elkarren segidako bi likidazio-balioen arteko gehienezko eta gutxienezko errentagarritasunen berri ematen du. Likidazio-balioa egunean behin kalkulaten da.. Gogoratu aurreko errentagarritasunek ez dutela etorkizuneko errentagarritasunik bermatzen. Aldian inbertsio-politika homogeneoari eutsi bazaio soilik jakinarazten da.

Arrisku-neurriak (%)

	Metatua	Hiru hilean behingoa				Urteko			
	Uneko urtea	Azken Hiruhil.(0)	Hiruhil.-1	Hiruhil.-2	Hiruhil.-3	2018	2017	2016	2014
Hegakortasuna (ii):									
Likidazio-balioa	5,65	5,65	4,59	6,53	9,63	7,60	3,85		
Ibex-35	12,24	13,19	11,14	12,33	15,86	13,67	12,89		
Letra Tesoro 1 año	0,19	0,22	0,11	0,21	0,35	0,29	0,15		
BENCHMARK LK SELEK PLUS	4,77	6,51	3,78	3,24	5,54	3,95	2,27		
VaR historikoa (iii)	3,68	3,68	3,65	3,49	3,33	3,33	2,69		


(ii) Hegakortasun historikoa: balore batek aldi batean duen arriskua adierazten du; zenbat eta hegakortasun handiagoa, orduan eta arrisku handiagoa. Erreferentzia batzuen hegakortasuna ematen da konparazio gisa. Inbertsio -politika homogeneoa duten aldiatarako soilik ematen da hegakortasunari buruzko informazioa. (iii) VaR historikoa: Hilaibetean gehienez zenbat gal litekeen adierazten du, % 99ko konfiantza-mailarekin, IKEak azken 5 urteotan izan duen portaera errepikatuko balitz. Erreferentzia-aldiaren bukaerako datua da.

Gastuak (% s/batez besteko aktiboa)


Metatua	Hiru hilean behingoa				Urteko			
Uneko urtea	Azken Hiruhil.(0	Hiruhil.-1	Hiruhil.-2	Hiruhil.-3	2018	2017	2016	2014
1,42	0,49	0,46	0,47	0,49	1,94	1,89	1,74	

Erreferentzia-aldian egindako gastu zuzenak hartzen ditu barne: gestio-komisioa, gordailuzain-komisioa, auditoretza, banku-zerbitzuak eta gainerako gestio korronteko gastuak, aldiko batez besteko ondarearen gaineko ehunekotan. Funtsak / aktiboaren% 10 baino gehiago inbertituko duten beste funtsak ere barne dira sortutako zeharka inbertsioak, hala nola, harpidetza -tasak eta amortizazio barne eratorritako kostuak konpartimentu kasuan. Ratio honek ez du barne kudeaketa emaitza edo transakzio kostuak balore Negoziazio on kuota.

Grafikoa: azken 5 urteetan likidazioa balioa bilakaera



Grafikoa: Hiruhilekoen errentagarritasuna azken 3 urteetan



B) Konparazioa

Sozietate gestoreak gestionatutako fondoek erreferentzia-aldian izandako batez besteko errentagarritasuna ageri da ondoko koadroan. Fondoak inbertsio-bokazioaren arabera sailkatuta daude.

Inbertsio-bokazioa	Gestionatutako ondarea * (milaka euro)	Batez besteko partaite kopurua *	Batez besteko errentagarritasuna **
MONETARIOA			
EURO ERRENTA FINKOA	28.621	1.957	-0.08
NAZIOARTEKO ERRENTA FINKOA	373.747	11.669	0,62
EURO ERRENTA FINKO MISTOA	375.365	9.237	0,61
NAZIOARTEKO ERRENTA FINKO MISTO	20.476	1.677	1,23
EURO ERRENTA ALDAKOR MISTOA	11.721	1.198	1,76
NAZIOARTEKO ERRENTA ALDAKOR MIS	481.063	9.801	0,99
EURO ERRENTA ALDAKORRA	67.736	5.026	0,52
NAZIOARTEKO ERRENTA ALDAKORRA	80.655	6.961	1,06
ERREFERENTZIADUN GESTIOKO IKEA			
ERRENDIMENDU FINKOKO BERMATUA	593.978	23.472	0,59
ERRENDIMENDU ALDAKORREKO BERM	498.739	23.490	0,22
BERME PARTZIALEKOA			
ETEKIN OSOA			
GLOBALA	29.238	545	1,14
FMM Corto Plazo Valor Liquidativo Variabl			
FMM Corto Plazo Valor Liquidativo Consta			
FMM Corto Plazo Valor Liquidativo Baja Vc			
FMM Estandar Valor Liquidativo Variable			
Renta Fija Euro Corto Plazo			
IIC Que Replica Un Indice			
IIC Con Objetivo Concreto De Rentabilidad			
Fondoak guztira	2.561.339	95.033	0,62

* Batez bestekoak. (1) Honako hauek hartzen ditu barne: indize bat erreproduzitzen duten IKEak, kotizatutako fondoak (ETF) eta bermatu gabeko errentagarritasun-helburu jakineko IKEak. ** Inbertsio-fondo bakoitzak aldian duen batez besteko ondarearen gaineko batez besteko errentagarritasun haztatua.

2.3. Ondarearen banaketa aldiaren itxieran

(Zenbatekoa mila eurokotan)

Ondarearen banaketa	Uneko aldiaren amaiera		Aurreko aldiaren amaiera	
	Zenbatekoa	Ondarearen gaineko %-a	Zenbatekoa	Ondarearen gaineko %-a
(+) FINANTZA INBERTSIOAK	203.438	86,12	187.663	80,99
Barne Zorroa	1.487	0,63	5.244	2,26
Kanpo Zorroa	201.917	85,48	182.341	78,70
Inbertsio-zorroaren interesak	34	0,01	78	0,03
Inbertsio berankorrak, zalantzaszkoak edo auzipekoak				
(+) LIKIDEZIA (ALTXORTEGIA)	32.196	13,63	44.421	19,17
(+/-) GAINERAKOA	586	0,25	-382	-0,16
Ondarea guztira	236.220	100,00%	231.702	100,00%

Oharrak: Aldia hiruhilekoa edo seihilekoa izan daiteke, dagokionaren arabera. Finantza-inbertsioei buruzko informazioa burutzapenaren balio zenbatetsian ematen da.

2.4. Ondare-aldaketaren egoera

	Batez besteko ondarearen gaineko %-a			Aurreko aldiaren amaierarekiko aldaketa %-tan
	Uneko aldiko aldaketa	Aurreko uneko aldaketa	Urteko aldaketa metatua	
AURREKO ALDIAREN AMAIERAKO ONDAREA (milaka EUR)	231.704	227.814	213.183	
(+/-) Harpidetzak/Itzulketak (garbia)	0,85	0,48	0,91	80,70
(-) Mozkin gordin banatuak				
(+/-) Etekin garbiak	1,08	1,22	9,17	-9,39
(+) Gestio-errendimenduak	1,47	1,60	10,34	-6,54
(+) Interesak	0,02	0,03	0,08	-42,44
(+) Dibidenduak	0,05	0,15	0,20	-69,34
(+/-) Errenta finkoko emaitzak (gauzatuak edo ez)	0,15	0,16	0,45	-0,88
(+/-) Errenta aldakorrek emaitzak (gauzatuak edo ez)	0,51	0,40	1,37	27,51
(+/-) Gordailuetako emaitzak (gauzatuak edo ez)				
(+/-) Deribatuetako emaitzak (gauzatuak edo ez)	-0,19	-0,44	-0,15	-55,99
(+/-) IKE-etako emaitzak (gauzatuak edo ez)	0,91	1,30	8,37	-28,98
(+/-) Beste emaitza batzuk	0,03	-0,01	0,03	-423,62
(+/-) Bestelako etekinak				
(-) Egotzitako gastuak	-0,38	-0,38	-1,17	2,55
(-) Kudeaketa komisioa	-0,35	-0,35	-1,05	2,75
(-) Gordailuzainaren Komisioa	-0,03	-0,02	-0,07	2,75
(-) Kanpo-zerbitzuengatikoko gastuak				1,10
(-) Gestio arrunteko beste gastu batzuk				-0,93
(-) Egotzitako beste gastu batzuk	-0,01	-0,01	-0,05	-9,39
(+) Sarrerak				
(+) IKEaren aldeko deskontu-komisioak				
(+) Ostera-lagatako komisioak				
(+) Beste sarrera batzuk				
UNEKO ALDIAREN AMAIERAKO ONDAREA (milaka EUR)	236.220	231.704	236.220	

Oharra: Aldia hiruhilekoa edo seihilekoa izan daiteke, dagokionaren arabera.


3. Finantza-inbertsioak

3.1. Finantza-inbertsioak burutzapenaren balio zenbatetsian (milaka eurokotan) eta ondarearen gaineko ehunekotan, aldiaren amaieran.

Inbertsioaren eta jaulkitzailearen azalpena	Dibisa	Oraingo aldia		Aurreko aldia	
		Merkatu-balioa	%	Merkatu-balioa	%
BONO D. ESTADO ESPAÑOL 1,95 2030-07-30	EUR	1.487	0,63	1.444	0,62
Urtebetetik gora kotizatutako zor publikoa guztira		1.487	0,63	1.444	0,62
KOTIZATUTAKO ERRENTA FINKOA GUZTIRA		1.487	0,63	1.444	0,62
REPO LABORAL KUTXA -0,39 2019-07-01	EUR			3.800	1,64
ALDI BATERAKO ESKURATURIKO AKTIBOAK GUZTIRA				3.800	1,64
ERRENTA FINKOA GUZTIRA		1.487	0,63	5.244	2,26
BARRUKO FINANTZA INBERTSIOAK GUZTIRA		1.487	0,63	5.244	2,26
BONO UNITED STATES 2,25 2027-02-15	USD	5.291	2,24	4.978	2,15
Urtebetetik gora kotizatutako zor publikoa guztira		5.291	2,24	4.978	2,15
KOTIZATUTAKO ERRENTA FINKOA GUZTIRA		5.291	2,24	4.978	2,15
ERRENTA FINKOA GUZTIRA		5.291	2,24	4.978	2,15
PARTICIPACIONES LYXOR UCITS ETF ES50	EUR			3.497	1,51
PARTICIPACIONES LYXOR ETF MSCI EMER	EUR	7.883	3,34	7.890	3,41
PARTICIPACIONES INVESCO PANEU STR EQ	EUR	2.224	0,94	2.159	0,93
PARTICIPACIONES PIMCO FUND EMERG M	EUR	7.935	3,36		
PARTICIPACIONES HSBC EUR HYLD BON IC	EUR	3.692	1,56	1.331	0,57
PARTICIPACIONES PIMCO CAPITAL SEC	EUR	3.440	1,46	5.949	2,57
PARTICIPACIONES ETF DBX EMG MKT	EUR	1.366	0,58	1.368	0,59
PARTICIPACIONES HSBC EUR HYLD BON IC	EUR	8.195	3,47	5.275	2,28
PARTICIPACIONES ABERDEEN GLOB A2 **	EUR	526	0,22	519	0,22
PARTICIPACIONES MORGAN STANLEY	EUR	1.807	0,77	1.815	0,78
PARTICIPACIONES ABERDEEN EM INFR.Y2	EUR	8.478	3,59	5.335	2,30
PARTICIPACIONES ISHARES	EUR	8.350	3,53	8.188	3,53
PARTICIPACIONES PIMCO CAPITAL SEC	EUR			787	0,34
PARTICIPACIONES THREADNEEDLE	EUR	2.557	1,08	2.319	1,00
PARTICIPACIONES DEUTSCHE	EUR	5.979	2,53	5.973	2,58
PARTICIPACIONES ISHARES	EUR	4.479	1,90	4.320	1,86
PARTICIPACIONES NORDEA BANK AD	EUR	5.767	2,44	7.188	3,10
PARTICIPACIONES SCHRODER ISF EUR DI	EUR	1.987	0,84	814	0,35
PARTICIPACIONES ISHARES CORE FTSE	EUR	520	0,22	523	0,23
PARTICIPACIONES THREADNEEDLE	EUR	1.359	0,58	1.297	0,56
PARTICIPACIONES AMUNDI	EUR	5.114	2,16	4.965	2,14
PARTICIPACIONES AMUNDI	EUR	4.820	2,04	5.139	2,22
PARTICIPACIONES MS EMERGING	EUR	7.750	3,28		
PARTICIPACIONES LAZARD	EUR	4.638	1,96	9.133	3,94
PARTICIPACIONES AMUNDI ETF S&P 500	EUR	9.592	4,06	9.484	4,09
PARTICIPACIONES AMUNDI	EUR	8.263	3,50	8.262	3,57
PARTICIPACIONES AMUNDI	EUR	8.620	3,65	8.629	3,72
PARTICIPACIONES ISHARES MSCI AUST	EUR	9.410	3,98	9.033	3,90
PARTICIPACIONES NORDEA BANK AD	EUR	3.020	1,28	5.081	2,19
PARTICIPACIONES THREADNEEDLE EUR	EUR	6.896	2,92	6.386	2,76
PARTICIPACIONES LYXOR ETF	EUR	5.964	2,52	5.957	2,57
PARTICIPACIONES FIDELITY FGLOB****	EUR	3.571	1,51	3.467	1,50
PARTICIPACIONES FIDELITY FNDS EU YD	EUR	6.351	2,69	5.895	2,54
PARTICIPACIONES AMUNDI	EUR	6.163	2,61	5.973	2,58
PARTICIPACIONES ISHARES	EUR	5.879	2,49	5.693	2,46
PARTICIPACIONES ISHARES	EUR	3.848	1,63	3.623	1,56
PARTICIPACIONES ISHARES	EUR	3.408	1,44	3.279	1,42
PARTICIPACIONES AMUNDI	EUR	7.377	3,12	7.111	3,07
PARTICIPACIONES JUPITER GLOBAL FUND	EUR	3.003	1,27	2.456	1,06
PARTICIPACIONES SCHRODER ISF EUR DI	EUR	2.228	0,94	2.309	1,00
PARTICIPACIONES ARCANO CAPITAL	EUR	2.221	0,94		
PARTICIPACIONES PETERCAM L BUNDS EUR	EUR	2.431	1,03		
IKE-AK GUZTIRA		197.111	83,43	178.422	77,00
KANPOKO FINANTZA INBERTSIOAK GUZTIRA		202.402	85,67	183.400	79,15
FINANTZA INBERTSIOAK GUZTIRA		203.889	86,30	188.644	81,41

Oharrak: Aldia hiruhilekoaren edo seiuhilekoaren amaiera izan daiteke, dagokionaren arabera.

3.2. Finantza-inbertsioen banaketa aldiaren itxieran: Ondare osoaren gaineko ehunekoa



3.3. Deribatuetako eragiketak. Aldiaren amaieran irekitako posizioen laburpena (zenbatekoa mila eurokotan)

azpikoa	Instrumentua	Zenbateko nominal konprometitua	Inbertsioaren helburua
BO. US TREASURY NOTE 280221	V/ Fut. FU. US TNOTE 5 191129	10.121	Inbertsioa
BO. US TREASURY NOTE 150824	C/ Fut. FU. US TNOTE 10 191129	2.536	Inbertsioa
BO. ESTADO ALEMAN 1,00% 250815	V/ Fut. FU. EURO BUND 191206	9.653	Inbertsioa
Errenta finkoa azpikoa guztira		22.310	
DJ EURO STOXX 50	V/ Opc. CALL EURO STOXX50 3600 DEC 2019	13.644	Inbertsioa
INDICE S&P 500	V/ Opc. CALL STANDARD & POORS 500 3000 DIC 2019	8.670	Inbertsioa
Errenta aldakorreko azpikoa guztira		22.314	
OBLIGAZIOAK GUZTIRA		44.624	

4. Gertaera garrantzitsuak

	Bai	Ez
a. Harpidetza/errenboltoak aldi baterako etetea		X
b. Harpidetza/errenboltoak berriz abiatzea		X
c. Ondare-errenbolto esanguratsua		X
d. Ondarearen % 5etik gorako zorpetzea		X
e. Sozietate gestorea ordeztzea		X
f. Erakunde gordailuzaina ordeztzea		X
g. Sozietate-gestorearen kontrola aldatzea		X
h. Informazio-liburuxkaren funtsezko elementuak aldatzea		X
i. Fusio-prozesua baimentzea		X
j. Beste gertaera garrantzitsu batzuk		X

5. Gertaera garrantzitsuak azaltzeko eranskina

Ez aplikagarria.

6. Lotutako eragiketak eta beste informazio batzuk

	Bai	Ez
a. Fondoaren ondareko partaide esanguratsuenak (% 20tik gorako ehunekoa)		X
b. Garrantzi txikiko aldagetak Araudian		X
c. Gestorea eta gordailuzaina talde berekoak dira (Balore Merkatuari buruzko Legearen 4. artikulua arabera)	X	
d. Baloreak erosi edo saltzeko eragiketak egin dira eta gordailuzaina saltzailea edo eroslea izan da, hurrenez hurren	X	
e. Gestorearen edo gordailuzainaren taldeko erakunderen batek jalki edo abalaturako baloreak edo finantza-tresnak erosi dira, edo erakunde hori merkaturatzailea, aseguratzailea, zuzendaria edo aholkularia izan da, edo lotutako		X
f. Baloreak edo finantza-tresnak erosi dira, eta horien kontrapartida gestorearen edo gordailuzainaren taldeko erakunde bat izan da, gestore berak gestionatutako IKE bat edo taldeko beste gestore bat		X
g. Gestorearen taldeko erakundeek sarrerak jaso dituzte eta horien jatorria IKEak ordaindutako komisioak edo gastuak dira		X
h. Lotutako beste informazio edo eragiketa batzuk		X

7. Lotutako operazioen gaineko eranskin esplikatiboa eta ohartarazpenak

Hiruhilekoan zehar berrerosteko hitzarmena duten eragiketak gauzatu dira entitate gordailuzainarekin, 4,9 milioi eurokoak erosketa-kontzeptuan (batez besteko ondarearen % 2,1), eta 8,7 milioi eurokoak salmenta-kontzeptuan (ondarearen % 3,73).

8. CNMVk agindutako informazio eta ohartarazpenak

Ez aplikagarria.

9. Aldizkako txostena azaltzeko eranskina

1. MERKATUEN EGOERA ETA FONDOAREN BILAKAERA

a) Gestoreak merkatuen egoerari buruz duen ikuspegia
 Ekonomia globala moteltzen ari dela erakusten duten zantzuak gero eta agerikoagoak izan arren, arrisku-merkatuek irabaziak lortzen jarraitzen dute. Agentek oso argi dute banku zentralak indargabetu egingo dutela edozein agertoki kaltegarri. Ondorioz, hegakortasuna arindu egingo da eta irabaziak sortuko dira aktibo ia guztietan, baita baloraziorik doienak dituztenetan ere. Ikuspegi makroekonomiko hutsetik, adierazleak dezelerazioaren eremuan murgildu dira. Enpresei egindako inkestek agerian jarri dutenez, hondatu egin da ziklo ekonomikoarekiko konfiantza. Hala, herrialde batzuek BPGdan hazkunde negatiboak izan dituzte urteko bigarren hiruhilekoan. BPGdaren hazkunde-aurreikuspenak beherantz berrikusten ari dira oro har, eta, horren aurrean, banku zentralak eusteko neurriak hartu dituzte. Estatu Batuetan, interbentzio-tasa % 2,50etik % 2ra jaitsi da, eta urteko azken hiruhilekoan beste jaitsiera bat izango dela espero da. Europan, sisteman likidezia handiagoa txertatzeko neurri pizgarriak iragarri ditu EBZk. Hazkundera suspertzeko onuragarriak dira neurri horiek, eta inflazioak berriro gehiegi jaistea saihestea dute helburu. Izan ere, datozen urteetarako inflazio-aurreikuspenak gutxieneko maila historikoetan daude Europan, eta Estatu Batuetan ere ez daude maila horretatik oso urrun. Dezelerazioari beste elementu batzuk erantsi zaizkio, egonkortasuna oztopatu eta agertoki ekonomikoak okertu dezaketanak. Horien artean ditugu, lehenbizi, gerra komertziala, dagoeneko globala izaten hasi dena. Estatu Batuetako muga-zergen politika Europara ere zabaltzen da, europar esportazioen eta herrialde esportatzaileen kalterako. Izan ere, dezelerazioa nabarmenagoa da Alemanian, 2019ko 2. hiruhileko BPGdaren jaitsieran ikus daitekeenez. Horrez gain, zehaztu gabeko beste bi arrisku-faktore daude: Brexita eta herrialde batzuetako hauteskondeak. Agertoki horretan, banku zentralak neurriak hartu behar izan dituzte. Estatu Batuetako interes-tasen jaitsierak eta EBZk zorra erosiko duelako iragarpenak indartu egin dute, are gehiago, epe laburrerako interes-tasen jaitsiera, eta litekeena da Europako tasa monetarioetan are zenbaki negatiboagoak izatea. Espainiako 2 urtetik beherako zorra -% 0,50 inguruan dago, Italiakoa -% 0,25ean, eta Grezia ere finantzaketa negatiboa izatera heldu da oso denbora laburrean. Hirugarren hiruhilekoa positiboa izan da epe ertain eta luzerako eurotako zorarentzat, eta horrek on egin dio zorroaren errentagarritasunari. Altxoraren zorroaren 10 urterako tasa oinarritzko 25 puntu jaitsi da berriro, eta ia % 0ra heldu da hiruhilekoan. Italiako bonu subiranoek ere portaera positiboa izan dute: 10 urterako tasa oinarritzko 100 puntu baino gehiago jaitsi denez hiruhilekoan, bonuak % 1etik behera kotizatzen du. Euroguneko gainerako herrialdeetako bonuek ere etekina atera diote sistemaren likidezari, eta irabaziak izan dituzte halaber. Gauzak horrela, interes-tasen beherakadek errebalorizazio gehiago ekartzea zaila izango da eurogunean; hortaz, interes-tasen arriskuarekiko posizio mugatua dugu. Estatu Batuetako interbentzio-tasaren beherakadak eragin positiboa izan du bertako eperik luzeeneko zorrean. AEBko bonuen errentagarritasuna jaistearren ondorioz (oinarritzko 10 puntutik 40ra), irabaziak lortu dira epe guztietan, eta uste dugu horrela jarraituko dutela Erreserba Federalak tasak murrizten baditu. Gobernuetako interes-tasak jaisten ari direlarik, eta zikloaren inguruko aurreikuspenak pixkanaka okertzen ari diren arren, eurotako inbertsio-mailako zor korporatiboak bilakaera positiboa izan du, eta gobernuen aurreko diferentzialari aldaketarik gabe eutsi dio. Merkaturak gehiegitxo balioztatuta dagoenez eta, batez ere, makroekonomiaren narriadurak aurrera jarraitzen badu, gure ustez, gobernuen zorrak baino portaera kaskarragoa izango du merkatuak datozen hiletan. High Yield zor korporatiboak (kreditu-kalitate txikiagokoa) sentiberagoa izan da narriadura makroekonomikoarekiko, eta handitu egin zaio eurotako gobernu-bonuekiko diferentziala (oinarritzko 43 puntu hiruhilekoan). Halere, portaera erabat positiboa izan du, zorroaren tasek behera egitearen ondorioz. Ikuspegi positiboa izaten jarraitzen badugu ere, gaur egungo dezelerazio-agertoki honetan merkatuak galdu egin du erakargarritasuna. Burtsek jardun egokia izan dute berriro, errebalorizazioak izan baitituzte maila globalean; halere, aurreko epealdietan baino ahultasun handiagoa erakutsi dute. Ekonomia hazteko itxaropen txikiagoak daudenez, eremu geografiko guztietan

beherantz berrikusi dira enpresek hurrengo hiru hilabetearako espero dituzten irabaziak.

b) Inbertsioari buruz hartutako erabaki orokorrak

Errenta aldakorrean % 49 inbertitu da, batez ere Europakoan eta Estatu Batuetakoan; Japonian eta garatzeko bidean dauden herrialdeetan, berriz, % 10ekoa da esposizioa. Errenta finkoan % 29 inbertitu da, garatzeko bidean dauden herrialdeetako bonuetan eginez apusturik handiena (% 13koa), eta, ondoren, inbertsio-mailako errenta finko pribatua.

c) Erreferentzia-indizea

Epealdian, fondoaren errentagarritasuna handiagoa izan da Espainiako urtebeterako Altxorraren Letrarena baino.

Fondoak benchmarka baino errentagarritasun txikiagoa izan du: % 0,66 txikiagoa, hain zuzen.

d) Inbertsio Kolektiboko Erakundearen (IKEaren) ondarearen bilakaera, partaideak, errentagarritasuna eta gastuak

Aldi honetan, +30 partaidetako aldakuntza izan du fondoak, eta % 1,087ko errentagarritasun garbia. Horrenbestez, epealdia ixtean, 4.517 mila euroko aldakuntza izan da ondarean, eta, beraz, 236.220 mila eurokoa da orain. Fondoak egindako gastuek % 0,49ko eragina izan dute berorren errentagarritasunean. % 0,107ko gastu erantsia egon da, inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuetan egindako inbertsioagatik. Epealdia ixtean, ondarearen % 83,8 inbertitu da IKE-etan.

e) Fondoaren errendimendua gestorearen gainerako fondoekin alderatuta
Gestorearen batez bestekoa (% 0,62koa) baino errentagarritasun handiagoa eman du fondoak.

2. INBERTSIOEI BURUZKO INFORMAZIOA

a) Epealdian egindako inbertsioak

Lortutako errebalorizazio handien ostean, errenta finko finantzarioa (Lazard eta Nordea fondoak) saldu da, baita Nordea European Covered Bond fondoa ere. Bestalde, 2023an mugaeguneratzen den Schoreder Maturity Bond fondoa erosi da, eta higiezin merkatuari lotutako beste fondo bat ere bai: DPAM Real Estate Europe Dividend deritzona. Errenta finkoko zorroaren BETa % 1,18koa da.

b) Baloreak mailegatzeko eragiketak

N/A

c) Deribatuetako eragiketak eta aktiboen aldi baterako eskurapena

Tresna deribatuekin egindako eragiketek doikuntza izan dute helburu, unean uneko inbertsio-tarteak fondoaren inbertsio-politikan zehaztutako mugen baitan egon daitezkeen. 7. eranskinean adierazi denez, aktiboen aldi baterako eskurapenak egin dira. Batez besteko palanka-efektua % 63,35ekoa izan da.

d) Inbertsioei buruzko bestelako informazioa.

N/A

3. ERRENTAGARRITASUN-HELBURU ZEHATZAREN BILAKAERA

N/A

4. FONDOAK BEREGANATZEN DUEN ARRISKUA

Fondoak bereganatutako arriskua, epealdian egunero izandako likidazio-balioaren urteko hegakortasunaren bitartez neurtzen dena, % 5,65ekoa izan da. Urtebeterako Altxorraren Letrek % 0,222ko hegakortasuna izan dute epe berean, eta Ibex35ak % 13,190ekoa. Fondoaren azken 5 urteetako hileko VaRa % 3,68koa izan da.

5. ESKUBIDE POLITIKOAK ERABILTZEA

N/A

6. INFORMAZIOA ETA CNMV-REN OHARTARAZPENAK

N/A

7. ELKARTASUN-FONDOAREN ERAKUNDE ONURADUNAK ETA EMAN ZAIEN ZENBATEKOA

N/A

8. ANALISI-ZERBITZUAREN ONDORIOZKO KOSTUAK

Fondoak ez du inbertsioei buruzko finantza-analisirako zerbitzuaren ondoriozko gasturik izan. Gestoreak prozedura zehatzak ditu bitartekariak aukeratzekoan exekuziorik onenaren printzipioa betetzeko, eta haien bidez burutu dira Inbertsio Kolektiboko Elkarrearen eragiketak.

9. ASMO JAKIN BATERAKO KONPARTIMENTUAK

N/A

10. MERKATUAREN AURREIKUSPENAK ETA FONDOAN ESPERO DEN JARDUKETA

Ekonomiaren ziurgabetasun handiagoaren ondorioz, zuhurragoak gara errenta aldakorreko esposizioarekin; horregatik, estaldurak ezarri ditugu eta taktikoki jokatu dugu, hegakortasun handiagoaz baliatzeko. Errenta finkoan, hazkunde ekonomiko txikiagoak positiboa izan beharko luke zor publikorako. Atzeraldian sartzen ez bagara, kreditu-diferentziak ez lirateke gehiegi hazi beharko; beraz, arriskurik handieneko aktiboak, inbertsio-mailako errenta finko korporatiboa, eta High Yielda eta garatzeko bidean dauden herrialdeetako errenta finkoa baliatu egin beharko lirateke barne-errendimenduaren tasa handiagoaz.

10. Ordainsari politikari buruzko informazioa

Inbertsio Kolektiboko Erakundearen urteko txostenean jasoko da ordainsari-politikei buruko informazioa, Inbertsio Kolektiboko Erakundearen 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen 46 bis artikuluan finkatutakoaren arabera.

11. Balore finantzarioen erakiketen inauruko informazioa. bermeen berrerabilpena eta itzulera osoaren trukeak (2015/2365 EBko araudia)

Baloreak finantzatzeko eragiketak egin dira LABORAL Kutxarekin, 7. eranskinean azaltzen denez. Ez da egin bermeak berrerabiltzeko eragiketarik edo guztizko errendimenduko swapik.